



## **ETXEKO IRAKASKUNTZA EDO ARRETA PEDAGOGIKOA/ OSPITALEKO IKASGELAK**

 **Etxeko irakaskuntza edo arreta pedagogikoa**

 **Ospitaleko ikasgelak**



## ETXEKO IRAKASKUNTZA EDO ARRETA PEDAGOGIKOA

### **Nor da arduraduna?**

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.

### **Noiz jarri zen martxan?**

1996-1997 ikasturtean.

### **Zer da?**

Zerbitzu ibiltaria da, etxez etxekoa, eta etxean ematen dena, gaixotasun luzea duten haurren hezkuntza-beharrei erantzuteko helburu duena.

### **Noiz erabiltzen da?**

Gaixotasun luzea edo antzeko gorabeherak direla-eta, ikasleak eskolara joan ezinik daudenean.

### **Zer helburu du?**

Eskolatze ahalik eta normalena lortzea; hau da, derrigorrezko hezkuntzarako adina duten ikasleak, medikuaren aginduz-edo eskolara joan ezinik daudenean, ez daitezela baztertuta eta bakartuta geratu euren hezkuntza-prozesuan.

### **Zein hezkuntza-etapa edo –ziklotan erabiltzen da?**

Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, bai ikastetxe publikoetan bai itunduetan.

### **Nortzuk ematen dute zerbitzua?**

Hezkuntzako profesionalek, eta etxeetara joaten dira, eta etxeak hartzen dituzte eskola-eremu berritza, etxean ospitaleratuta edo eriondo dauden ikasleentzat.

### **Nola eskatzen da zerbitzua?**

Gurasoek eskatzen dute ikastetxean, txosten medikoa aurkeztuz. Ikastetxeak ere bere txostena egingo du eta Ikuskaritzari bidaliko dio. Ikuskaritzak erabakiko du.

### **Nola funtzionatzen du zerbitzuak?**

Etkez etxe dabiltzan irakasleekiko lehen harremana ikastetxean izaten da beti, lehenengo eta behin irakasleekin eta gero familiarekin. Prozesuan, oso-oso inportantea da koordinazio ona izatea etkez etxeko laguntza-ekipoen, familien eta ikastetxeko irakasleen artean.



## OSPITALEKO IKASGELAK

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren hezkuntza-zerbitzua da.

### **Non daude?**

Ondoko erietxe edo ospitaletako pediatria-ataletan:

Basurtuko Ospitalea  
Gurutzetako Ospitalea (Barakaldo)  
Santiago Ospitalea (Gasteiz)  
Txagorritxu Ospitalea (Gasteiz)  
Arantzazuko Andre Mariaren Ospitalea (Donostia)

### **Nortzuk joan daitezke?**

Ospitalean ingresatuta dauden haur guztiak, baldin eta eskola-adinean badaude eta medikuaren baimena badute.

Ospitaleko gelan egon beharra badute, eta ospitaleko ikasgelara ezin badute joan, irakasleak joango dira haurra dagoen gelara, arreta pedagogikoa ematera.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko irakasleak arituko dira ospitaleko ikasgeletan.

### **ORDUTEGIA (GUTXI GORABEHERAKOA):**

10:00etatik 12:30era

14:00etatik 16:30era

### **Zein da ikasgela horien helburua?**

Hezkuntza defizitarioa edo hezkuntzarik eza direla eta, ospitaleratuta dauden haurren diskriminaziorik ez gertatzea.

Osasun-egoerak horretarako aukera ematen badu, ospitalean dauden ikasleen ikasketa-prozesua jarraitzea, jatorrizko ikastetxearen curriculum-egiturarekin bat etorrituz, eta dagozkion curriculum-egokitzapenak eginez.

Haurra bere gaixotasunaren benetako dimentsioa edo nondik norakoa baloratzeko eta egoki kokatzeko gai izan dadin laguntzea, ospitaleratzeak eragiten duen estutasuna edo antsietatea gutxituz, curriculum-arloen, eskuzko jardueren, jolasaren eta pertsonen arteko harremanen bitartez.



Ospitaleko egonaldiari izaera positiboa eta prestakuntza-edukia ematea, haurrak gauza direla sentitu daitezen lortuz eta ikasgelan giro atsegina sortuz, eskola-lanetarako motibazioa izan dezaten.

Hezkuntzako edo osasuneko beste zerbitzu batzuekin koordinatzea, eta uneoro laguntzea ospitaleratuta eta eriondo dauden haurrentzako giroa eta arreta hobetzen.

### **Nola egiten da lan ospitaleko ikasgeletan?**

Ospitaleko ikasgelak, arreta emango dien ikasleen hezkuntza-behar ezberdinei erantzuna emateko asmoz, hainbat jarduera eskaintzen ditu: ospitaleko ikasgela hezkuntza-ekimenen zentrotzat hartuta sor daitezkeen proiektu eta lanen planteamendutik hasi, eta ikasleek euren erreferentzia-ikastetxean daramaten curriculumari jarraitzeko aukeraraino.